# Iragarpenak
# Anuncios

EKONOMIA ETA HERRIOGASUN SAILA
*Akurapen Batzorde Nagusia*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailaren menpeko herri-ikastegietara ikasleak garraiatzeko zerbitzuak akuratzeari buruzko IRAGARPENA. 3395

DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA
*Comisión Central de Contratación*

ANUNCIO relativo a la contratación de los servicios del transporte escolar a los centros públicos de enseñanza dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. 3395

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## KULTURA ETA TURISMO SAILA

**1370**

Kultura eta Turismo Sailaren, Kluben Izenei Buruzko, 1986eko Maiatzaren 21eko AGINDUA, 1985eko Urriaren 8ko 306/1985 Dekretuaren 4.Artikuluaren mamia osatuz.

Klub eta Kirol Elkarteen funtzionamendu eta sortzeari buruz, 1985eko urriaren 8ko 306/1985 Dekretuak 4. artikuluan, kluben araudietan arauketa gai izan behar duten oinarrizko gaiak finkatzen ditu. a)idazatian Klubaren izena jasotzen da errakuntzara edo nahasketara eraman dezakeen antzeko izenik eta lehendik dagoen edozeinen berdina ezin izan daitekeela erabakiz.

Halaber izen horrek ezin hartuko du beste Entitate Publiko edo Pribatuari dagokion titularitatearen izen oso edo izenaren zatirik, bere baimenarekin izan ezik.

Kirol Kluben sortze-prozesuaren eta jadanik eratuta daudenek dituzten estatutoen moldaketaren azterketatik, Kiroletarako Zuzendaritza honek jakin ahal izan du batetik, kirol mota bera edo desberdinak praktikatzen dituzten klubek izen bera dutela, eta bestetik zenbait klubek erakunde Publiko edo Pribatuei dagozkien izenak erabiltzen dituztela.

Han dela eta, Kluben izendapenerako taiuzko jokabidea ezartzeko asmoz, Kluben errolda egin ahal dadin eta arduralaritzak ikuskaketa lana eta legetasun kontrala errezago bete ahal izan dezan, Kultura eta Turismo Sail honek Kluben izendapena araupetuz honako agindua ematera jo du.

Honen ondorioz,

ERABAKITZEN DUT:

*1. Artikulua.*– Kiroletako Klub eta Elkarteen Erroldean inskribatzearen xederako, Kluben izenaz ulertuko da zera:Kirol erakundea besteengandik bereiztu eta zeinkatzen duen izen propioa, ez da izen bezala onartuko

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

**1370**

ORDEN de 21 de Mayo de 1986 del Departamento de Cultura y Turismo por la que se desarrolla el contenido del artículo 4º a) del Decreto 306/1985, de 8 de Octubre de 1985, sobre denominación de Clubs.

El Decreto 306/1985, de 8 de Octubre de 1985, sobre regulación de constitución y funcionamiento de Clubs y Asociaciones Deportivas establece en su artículo 4º las materias mínimas que deben ser objeto de regulación en los Estatutos de los Clubs. En su apartado a) se recoge la denominación del Club, disponiéndose que no podrá ser igual a la de cualquier otro ya existente, ni tan semejante que pueda inducir a confusión o error. Asímismo recoge que la denominación no podrá contener en todo o en parte, el nombre cuya titularidad corresponda a otra Entidad Pública ó Privada, sin previa autorización de la misma.

El proceso de constitución de Clubs así como la adaptación de los Estatutos de los ya constituidos acompañado de su solicitud de inscripción en el Registro de Federaciones y Asociaciones Deportivas, ha hecho constatar a la Dirección de Deportes no sólo la igualdad en la denominación de Clubs practicantes de una misma modalidad deportiva, sino de otras modalidades y, la utilización por parte de los Clubs de nombres cuya titularidad corresponde a Entidades Públicas y Privadas.

Por ello y al objeto de establecer una política ordenada en la denominación de los Clubs que facilite a la Administración la labor supervisora y de control de legalidad de los mismos además de permitir la elaboración del censo de Clubs, este Departamento de Cultura y Turismo ha procedido a dictar la presente Orden por la que se regula la denominación de Clubs.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se entiende por denominación del Club, a los efectos de la inscripción en el Registro de Clubs y Asociaciones deportivas, al nombre propio que identifica y distingue a la entidad deportiva, no admitiéndose

elkarteari berari buruzko aipamenik (Elkarte, Klub, bazkun, talde, elkargo..) ezta praktikatzen den kirol motari buruzkorik ere.

*2. Artikulua.*– Ez da kiroletako Klub edo Elkarte baten izena erregistratuko, beste batek izen bera edo nahasketara eraman dezakeen antzeko izena balu, ezta Klubaren Kirol xedea garbi azalduko ez lukeen izena ere.

*3. Artikulua.*– Kiroletako Klub edo elkartearen izenak ezin hartuko du beste Erakunde Publiko edo Pribatuari dagokion titularitatean izen oso edo izenaren zatirik, erakunde horien baimena izan ezik.

*4. Artikulua.*– Izen bera duten kiroletako Klub edo Elkarteak aurkeztuko balira erroldan inskribatzeko asmoz, lehentasun maila emanez, honako erizpide hauek erabiliko dira.

1.) Lehenago kiroletako herri-erroldetegiren batetan inskribatuta egon dela egiaztatu dezakeen kiroletako Kluba edo Elkartea hartuko da izendapenaren titulartzat.

Aipaturiko erroldetegietan izen bera duten Kluben inskribaketa egiaztatuko balitz, aintzinagokoaren inskribaketara joko litzateke.

2.) Herri-erroldetegietan inskribaturik dauden kiroletako Klub eta Elkarteen kasuetan, agiri-bidez legezko sortze datarik zaharrena egiazta dezakeen Kluba edo Elkartea inskribatuko da.

3.) Sortu berriak diren kiroletako Klub eta Elkarteetan, izenaren errolda titularitatea, Kultura eta Turismo Saileko erroldе nagusian, sortzerako Notari-Akta lehenengo aurkeztuko lukeen erakundeari emango litzaioke.

4.) Aurretik sortutako Klub edo Elkarte baten Kirol sail desberdinak balira, eta bere jaurtze-batzordeek hartutako ebazpenaz, kirol mota bakoitzeko legezko nortasuna duen Klub edo Elkarte bat eratzea erabakitzen badute, jatorrizko klubaren araudian finkatutakoaren arabera, kirol mota nagusia praktikatzen duen erakundeak hartuko du aintzinako izendapena.

ASKEN ERABAKIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

Gasteizen, 1986.eko Maiatzak 21.

Kultura eta Turismo Sailburua,
LUIS Ma. BANDRES UNANUE.

como tal las referencias a la figura asociativa (Sociedad, Club, Agrupación, Grupo, Asociación) o a la modalidad deportiva que se practica.

*Artículo 2.*– No procederá la inscripción registral de un Club ó Asociación deportiva si constase la inscripción de otro con la misma o semejante denominación tal que pudiese inducir a error o confusión ni la de aquellos cuya denominación impida colegir el carácter deportivo del Club.

*Artículo 3.*– La denominación del Club ó Asociación Deportiva no podrá contener en todo o en parte el nombre cuya titularidad corresponda a otra entidad Pública o Privada, salvo si contase con la previa autorización de dichas Entidades.

*Artículo 4.*– En el caso de la presentación para su inscripción registral de varios Clubs o Asociaciones deportivas con la misma denominación, se procederá en orden prioritario, a la aplicación de los siguientes criterios:

1º) Será considerado titular de la denominación, aquel Club o Asociación deportiva que acredite su inscripción anterior en algún Registro Público Deportivo.

En el supuesto de que la acreditación de los citados Registros certificase la inscripción de varios Clubs con la misma denominación procederá la inscripción de aquel del que constase una mayor antigüedad.

2º) En los casos de Clubs y Asociaciones deportivas inscritas en otros Registros Públicos, procederá la inscripción de aquel que acredite documentalmente fecha más antigua de su constitución legal.

3º) En los Clubs y Asociaciones deportivas de nueva creación, la titularidad registral de la denominación corresponderá a la Entidad que presentare, con anterioridad, ante el Registro General del Departamento de Cultura y Turismo Acta notarial fundacional.

4º) En el supuesto de tratarse de secciones deportivas de un Club o Asociación, previamente constituido y registrado, que por acuerdo de sus órganos de gobierno establezcan constituirse en Clubs o Asociaciones con personalidad jurídica propia por modalidades deportivas, corresponderá la denominación primitiva a la entidad practicante de la modalidad deportiva principal que como tal se hubieren consignado en los Estatutos del Club originario.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de Mayo de 1986.

El Consejero de Cultura y Turismo,
LUIS Ma. BANDRES UNANUE.